

GEOGRAFIA

GEOGRAFIA	1
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK	2
1 GAITASUN BERARIAZKOA	2
1 konpetentzia espezifikoren deskribapena	2
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	3
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	3
2 GAITASUN BERARIAZKOA	3
2 konpetentzia espezifikoren deskribapena	3
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	4
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	4
3 GAITASUN BERARIAZKOA	4
3 konpetentzia espezifikoren deskribapena	4
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	4
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	4
4 GAITASUN BERARIAZKOA	5
4 konpetentzia espezifikoren deskribapena	5
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	5
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	5
5 GAITASUN BERARIAZKOA	5
5 konpetentzia espezifikoren deskribapena	5
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	6
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	6
6 GAITASUN BERARIAZKOA	6
6 konpetentzia espezifikoren deskribapena	6
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	6
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	7
7 GAITASUN BERARIAZKOA	7
7 konpetentzia espezifikoren deskribapena	7
Ikasleen irteera-profilarekiko lotura	7
EBALUAZIO IRIZPIDEAK	7
OINARRIZKO JAKINTZAK	7
A. Espainia, Europa eta globalizazioa.	7
B. Espainiako ingurune fisikoaren jasangarritasuna.	8
C. Lurraldearen antolamendua ikuspegi ekosozialean.	8

GEOGRAFIA

Geografiak pertsonen eta lurraldearen arteko interakzio eta interdependentzia konplexuak aztertzen ditu, eta bizi diren espazioa deskubritzen laguntzen du, tokiko ingurunearen erreferentzia testuinguru global batean eginez; etengabe eraldatzen ari den errealitate ekosoziala ulertzeko eta munduan gure lekua aurkitzeko gida gisa ere balio du geografiak, mugak aitortuta eta XXI. mendeko erronken aurrean aukerak bilatuta.

Geografiaren aztergaia espazio geografikoa da, eta haren helburua, berriz, lurralde hori denboran zehar modelatzen duten prozesu naturalak eta giza prozesuak ulertzea eta holistikoki azaltzea. Espazio- eta denbora-kontzientzia duten izaki gisa, pertsonen inguruko errealitatearen interpretazio hori behar dute, lurraldearen pertzepzio pertsonal eta kolektibotik eta bizi-esperientziak garatzen diren une eta egitura sozialetatik harago. Batxilergoko ikasgai honetan, azterketa geografikoaren eskala Espainia da nagusiki, baina Europari eta munduari begiratzen dien ikuspegi baten barruan, zeina beharrezkoa baita mundu garaikidearen errealitateak ezagutzeko eta kritikoki baloratzeko.

Errealitate hurbil eta global horiek ulertzea funtsezkoa da ikasleen nortasuna eta identitatea eraikitzeko, baita besteen identitateak ulertzeko eta errespetatzeko ere. Gainera, oinarri izan behar du balio demokratikoetatik, oinarritzko eskubideekiko errespetutik eta erantzukizun zibikotik abiatuta herritar kritikoak izateko, Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren gizarte zuzena eta bidezkoa eraikitzeari begira.

Geografiak izaera praktikoa duenez, aukera ematen die ikasleei informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera arduratsuan moldatzeko, Informazio Geografikoaren Teknologien (IGT) funtzionaltasunei esker. IGTeek, bakarkako eta taldeko ikerketak garatzeko oinarritzko baliabide izateaz gain, lurraldearen diziplinarteko tratamendua planteatzeko bide ematen dute eta, diagnostikorako tresna gisa erabilita, ikasleen ingurune sozialean hobekuntza proposamenak eta ondorioak efizientziaz aurkezteko eta komunikatzeko aukera, analisi kritikotik abiatuta, haien heldutasuna eta parte-hartze zibikoa sustatuta. Geografia ikasgaiaren aplikagarritasunak ezagutzaren gizartearen eta ekintzailetza sozialaren funtsezko diziplina bihurtzen du.

Maila globalean eta tokikoan etengabeko eraldaketa sakonen testuinguruan, Geografia ikasgaiak Espainiako ingurune naturalaren eta gizartearen ikuspegi integrala eman behar du, eta saiatu lortzen pertsonak orok berez duen jakin-mina piztea eta ezagutza geografikoez gozatzea. Horretarako, kompetentzia espezifikoek lurraldean garatzen diren fenomeno naturalen eta giza fenomenoek ikerketan oinarritutako ikaskuntzan dute abiapuntua. Fenomeno horiek egungo gizartearen eguneroko bizitzari eragiten diote, eta horietako batzuk funtsezko erronkak dira etorkizunari aurre egiteko, iraganean ere halakoak izan baitziren zenbaitetan. Erronka ekosozial horiei pentsamendu geografikotik erantzuteko, zorrotasun zientifikoan, estrategien mobilizazioan eta jasangarritasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromiso etikoan oinarritutako jakintzak aplikatu behar dira arazoak ebaztean.

Horregatik guztiagatik, Espainiako geografia ikasteak lagundu behar du ikasleen garapen pertsonala eta heldutasuna lortzen, haien identitatea osatzen eta enpatia indartzen, ulertuta bizi garen gizarte anitza dela eta garapen jasangarria behar duten gizarte- eta lurralde-desorekak dituela. Prestakuntza duten pertsonak, bizi diren ingurunearekin konprometitutakoak, diren aldetik, ikasleek eskuratutako kompetentzia espezifikoak eta oinarritzko jakintzak aplikatu behar dituzte banakako eta taldeko ekintzak abian jartzeko, partekatzen ditugun balioetan oinarritutako irizpide etikoetatik eraldatzeko gaitasuna gauzatze aldera.

Geografia ikasgaiak Batxilergoko helburu orokorrak lortzen eta funtsezko kompetentziak eskuratzen laguntzen du, eta ikasleen pentsamendu geografikoa garatzea ahalbidetzen du, aurreko etapan Geografia eta Historia ikasgaiarekin hasitako bidetik. Gainera, diziplina arteko testuinguruetan eta esperientzia pertsonaletatik hurbil dauden testuinguruetan garatzea sustatzen du. Testuinguru horiek

ikasleen ikasteko ingurunea aberasteko baliatu behar dira, bakarka zein taldeka, haien interesekin lotuta eta haien premia espezifikoei erantzunez.

Ebaluazio irizpideek, konpetentzia espezifikoetatik eratorritakoek eta proposatutako oinarritzko jakintzei lotutakoek, honako hauek sustatzen dituzte: ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan parte-hartze aktiboa izatea, ikerketa aplikatua, bakarka zein taldeka, norberaren sorkuntza-lanak, kontestualizatuak eta esanguratsuak, lantzea, eta komunikazio efizientea jendaurrean. Hori guztia ikaskuntza-prozesuaren balorazio kritiko eta etikotik eta bere bizi-ingurunearen eraldaketarekiko, giza eskubideen errespetuarekiko eta jasangarritasun-printzipioarekiko konpromisotik abiatuta.

Oinarritzko jakintzak hiru bloketan egituratzen dira, eta hiru dimentsioetan landu behar dira ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak. Hiru dimentsioen eta hiru blokeen arteko transferentziak eta inbrikazioa funtsezkoak dira ikasgaiari ikuspegi praktikoa emateko eta bloke horien zeharkako tratamendua sustatzeko.

«Espainia, Europa eta globalizazioa» blokeak Espainiaren espezifikotasunaz eta dibertsitateaz eta munduko eta Europako testuinguruetan duen egoeraz jabetzeko beharrezkoak diren jakintzak biltzen ditu, bai eta Europar Batasuneko kide izateak duen garrantzia balioestekoak ere. «Espainiako ingurune fisikoaren jasangarritasuna» blokeak Espainiako erliebearen, klimaren, landarediaren, lurzoruen eta hidrografiaren dibertsitateari balioa ematen dioten jakintzak proposatzen ditu. Azkenik,

«Lurraldearen antolamendua ikuspegi ekosozialean» blokeak natura-baliabideen ustiapenen azterketa geografikoari buruzko jakintzak biltzen ditu, jarduera ekonomikoak eta biztanleria lurraldearen faktore eraldatzaile nagusitzat hartuta; horrez gain, prozesu horien kausetan eta ondorioetan sakontzen du eta ondoriozko lurralde-desorekak konparatzen ditu, jasangarritasunaren ikuspegia txertatuta eta Europar Batasuneko politiken inpaktua baloratuta. Funtsezkoa da azpimarratzea geografiak fenomeno espazialei ematen dien tratamendu integratzailea, eta gogora ekartzea sintesia pentsamendu geografikoaren helburu saihetsezina dela, eta horri lagundu behar diotela diziplina arteko ikuspegiak eta dimentsio ekosozialak.

Geografia ikasgaia irekia eta malgua da, konpetentzia espezifikoak eta oinarritzko jakintzak ardatz egituratzaile gisa hartuta, irakasleek ikaskuntza egoerak era guztietako testuinguruetara egokitu ahal izan ditzaten, eta Espainiako eta munduko erronka ekosozialei ematen ahal zaizkien erantzunak pizgarri bihurtu, ikasleen ikaskuntza aktiborako, pentsamendu geografikoaren garapenerako eta geografia jakintza aplikatu gisa baloratzeko. Azken batean, jakintza ororen gaitasun eraldatzailea sustatzeko, autonomia pertsonalean eta pertsonetikiko eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako erantzukizun zibikotik abiatuta, gaur egungo testuinguruan, bere aldaketa eta ziurgabetasunekin.

1. KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1 GAITASUN BERARIAZKOAK

Espainiaren egungo eta etorkizuneko erronka ekosozialak ezagutzea, ikuspegi geografikotik eztabaidatzea kanal ofizial eta estraofizialen, formalen eta informalen bidez jasotako mezuei buruz, eta pentsamendu kritikoa garatzea, kontsumo-eredu jasanezinak eraldatzeko eta bizimodu osasun- garriak hartzeko.

1 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Ikasleek Espainiako gizarteak aurrean dituen arazo ekosozialak ezagutu ditzaten, horiek identifikatzen jakin behar dute eta jabetu norbanakoen erantzukizunaz eta erantzukizun kolektiboaz arazo horiekiko: larrialdi klimatikoa, erronka demografikoa edo baliabide mugatuaren kudeaketa,

adibidez. Ingurune naturalari eta giza taldeei eragiten dieten ekodependentzia-egoerak dira, eta batzuetan maila globaleko prozesuak betetzen dituzte. Herritar informatuek eztabaidak izan behar dituzte, eta, horietan, iritzi kritikoa eman behar dute hedabide ofizialetatik edo informaletatik jasotzen diren mezuei buruz, informazioak zabaltzea saihesteko faltsua denean edo manipulazio interesatua dagoela hautematen denean.

Edozein eztabaida publiko edo pribatutan erabiltzen diren argudioak pentsamendu geografikoak ematen duen oinarri zientifikotik eraiki beharko lirateke, datu fidagarriek, eskuragarriek eta kontrastatuek bermatzen ez duten edozein iritzi baztertuta. Pentsamendu espazial kritikoa garatzea aktibo garran- tzitsuen da egungo eta etorkizuneko erronken aurrean erantzun etikoak aztertzeke beharrezko baldintzak beteko dituzten herritar prestatu eta informatuak izateko, nahi ez diren ondorioei aurrea hartuta. Era berean, ikasleek gogoeta zorrotza egin beharko lukete egoera berrietara egokitzeko duten gaitasunari buruz, kontsumo-eredu jasanezinak eraldatzeari buruz eta bizimodu osasungarriak bere egiteari buruz, norberaren eta guztien ongirako, eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat etorriz.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HHK3, KD4, STEM5, KPSII2, KPSII4, HK1, HK4, EK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1.1. Bizimodu jasanezinak zalantzan jartzea, egungo eta etorkizuneko erronka ekosozialak jorratzen dituzten mota guztietako informazio-iturrien azterketa geografikoaren bidez, eta erronka horiei aurre egiteko ekintzen garrantzian eta premian funtsatutako argudioetan oinarrituta.

1.2. Espainiaren eta Nafarroaren erronka naturalei eta sozialei buruz eztabaidatzea, besteen iritzia errespetatuz eta modu konprometitu, ahozko estrategiak erabiliz grafiko, irudien eta kartografiaren laguntza digitalarekin, eta datu zorrotzak erabiliz.

2 GAITASUN BERARIAZKOA

Ikusizko informazio-iturriak interpretatuz, espazio geografikoaren konplexutasuna ulertzea, paisaia naturalen eta gizatiartuen aberastasuna aintzat hartzea eta jasangarritasuna ekosistema naturalen eta giza ekintzaren arteko harremanen printzipio gisa balioesteko.

2 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Espazio geografikoa ulertzeko, haren konplexutasuna onartu behar da, elementu abiotikoak, biotikoak eta giza ekintza uztartzen dituen sistema gisa. Sistemen teoria orokorrak osagai horien eta horien harremanen arteko uztarketa ulertzeko beharrezkoak diren kontzeptuak ematen ditu. Sistema guztiak azpisistemek osatzen dituzte. Azpisistema horiek, behin bereizita, beren ezaugarrien azterketa xehea egiten laguntzen dute, eta, horri esker, analisi-eskalaren arazoa konpontzen da. Tokiko mailatik maila globalera, eskala horrek aukera ematen du aztertutako eremua edo zatia mugatzeko.

Irudiak interpretatzeak laguntzen du ikasleengan lurralde ezezagunen gaineko jakin-mina pizten, bai eta leku ezagunak berriro deskubritzeko ere, beren baliabide bisualak sormenez sortuta, krokisak eta zirriborroak barne. Paisaien behaketaren osagarri gisa (bertatik bertara ere egin daiteke), kartografia eta grafikoak ikusizko informaziorako iturri baliotsuak dira. Begirada geografikoa hezteak, halaber, Espainiak duen paisaia-ondare aberatsa estimatzea dakar. Jasangarritasuna irizpide gisa hartu behar da ingurune naturalaren eta ekintza antropikoaren arteko harremanaz iritzi kritikoa izateko eta bien arteko oreka sustatzeko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, STEM5, KD1, HK1, HK4, EK1, KKAK1, KKAK2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

2.1. Ekintza antropikoak duen inpaktu oro baloratzea jasangarritasunaren printzipiotik, ingurune naturalaren eta giza jardueren beraien konplexutasun sistemikoa aitortuta.

2.2. Paisaia naturaletatik eta gizatiartuetatik informazioa ateratzea ikus-iturriak aztertuz, elementu geografikoei antzemanaz eta faktore fisikoen eta giza faktoreen eragina eta elkarren arteko erlazioak interpretatuz.

3 GAITASUN BERARIAZKOA

Espainiako natura-dibertsitatea eta Europa barruan duen berezitasun geografikoa aztertzea, erliebearen, klimaren, hidrografiaren eta biodibertsitatearen ezaugarri komunak eta espezifikoak alderatuz, espazioaren pertzepzio pertsonalari buruz hausnartzeko.

3 kompetentzia espezifikoaren deskribapena

Espainiako natura-dibertsitatearen azterketak zentzua hartzen du lurreko eta uretako ekosistemen aniztasuna aztertzean; horren isla da naturagune babestuen sarea. Europa barruan duen berezitasunak toki nabarmena ematen dio Natura 2000 Sarearen barruan. Biodibertsitate horren arrazoiak da Iberiar Penintsulari, Balearretako eta Kanarietako uhartediei eta gainerako lurraldeei eragiten dieten faktore fisikoek eremu bakoitzean duten interakzio berezia.

Metodo konparatiboak ezartzen duen zorroztasunetik abiatuta, zeina analogiak eta desberdintasunak bilatzean oinarrituta baitago, azterketa geografiko orok datu eta kalkulu fidagarriak izan behar ditu abiapuntu, unitate geomorfologiko, klimatiko, begetal eta hidrikoen ezaugarriak eta banaketa deskribatzeko garaian kontrastatzen ahal direnak. Ingurune naturala baliatu ohi da pertsona bakoitzak lurraldeaz eta bere existentziaz duen pertzepzioa eraikitze, eta leku batekin edo batzuekin loturak eta kidetasun sentimenduak baldintzatu ditu. Iragan landatarra gertu duen gizarte nagusiki hiritar batean, lurraldearen erabileretako gatazkei buruzko hausnarketa, bai eta banakako identitateari eta identitate kolektiboari buruzkoa ere, eraiki behar da gainerako pertsonen errespetutik eta askotariko identitateen onarpenetik.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM4, KPSII3.1, HK1, HK3, KKAK1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

3.1. Espainiako eta Nafarroako espazio geografikoaren pertzepzioari buruz hausnartzea, ezaugarri komunak eta espezifikoak dituzten eskualde geomorfologikoak eta bioklimatikoak mapetan lokalizatu eta ezagutzea, ingurumenaren jasangarritasunari egiten dioten ekarpena nabarmenduta.

3.2. Paisaia naturalen dibertsitatea eta berezitasuna identifikatzea, haien banaketa, ezaugarriak eta kontrasteak alderatzea autonomia erkidegoan, Espainian eta Europan, bai eta ingurune horiekin erlazionatzeko giza moduak ere.

4 GAITASUN BERARIAZKOA

Informazio Geografikoaren Teknologiak (IGT), geografiaren berezko metodoak eta teknikak edo antzeko zientzietakoak aplikatzea, fenomeno naturalak eta giza fenomenoak lokalizatzea eta horien mugak edo kategoriak zorrotz arrazoitzea, edozein azterketa edo jardun-proposamenetan eskalaren arazoa efizientziaz bideratzeko.

4 kompetentzia espezifikoaren deskribapena

Geografiaren eta antzeko edozein zientziaren berezko metodoak efizientziaz aplikatzeko, lurraldean garatzen diren fenomeno fisikoak eta giza fenomenoak behatu, irudikatu eta azaltzeko erabilera praktikoa egin behar da. Beren ezaugarri integratzaileengatik eta informazio-iturri eta sormen-baliabide gisa duten ikusizko ahalmenagatik, Informazio Geografikoaren Teknologiek (IGT) lehenetsutako tokia izan behar dute ikasleek kompetentziaz erabiltzen duten tresnen artean.

Era guztietako eta hainbat eskalatako fenomeno fisikoen eta giza fenomenoaren banaketa eta lokalizazioa, baita denboran zehar izan duten bilakaera ere, geografiaren oinarritzko printzipioak dira, pentsamendu espaziala artikulatzen dutenak. IGTek hori lortzeko potentziala zabaldu behar dute, eta, horretarako, mapa interaktiboak eta fenomeno bakoitzaren hedadura justifikatzeko argudioak ematen dituzten baliabideak erabili behar dituzte. Hau da, eskualdeak, kategoriak edo tipologiak mugatuz eta mugen eta trantsizio-eremuen arazoak hausnartuz. Fenomeno natural eta giza fenomeno konplexuen eta etengabe eraldatzen ari direnen aurrean, benetako arazoei sormenezko konponbideak emateko ekimena, ezagutza zorrotzetik abiatuta, konpromiso zibikoaren funtsezko zatia da.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, STEM1, STEM2, KD1, KD2, KD5, HK3, EK1, EK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

4.1. Edozein fenomeno fisiko edo gizatiar lokalizatzeko edo irudikatzeko eskala egokia erabiltzea, IGTen laguntzarekin, eta hautatutako metodoak eta datuak justifikatzea, bai eta aztertu beharreko eskualdeak edo kategoriak eta trantsizio-eremuak mugatzea ere.

4.2. Norberaren produktuak sortzea, banakakoak edo taldekoak, azalpenak emateko, diagnostikoak komunikatzeko, hipotesiak edo ondorioak proposatzeko, IGTak aplikatuz.

5 GAITASUN BERARIAZKOA

Globalizazioa sistema ekonomikoen eta azkenaldiko gizarte-portaeren bilakaera barne hartzen duen testuinguru gisa onartzea, haien kausa- eta efektu-erlazioak ikertzea eta eskala guztietako interkonexioa eta interdependentzia frogatzen duten produktu propioak sortzea, giza duintasunarekiko eta ingurumenarekiko errespetua herritartasun globalaren oinarri gisa sustatzeko.

5 kompetentzia espezifikoaren deskribapena

Globalizazioaren fenomenoaren herrialdeen eta haien sistema ekonomikoen arteko harreman konplexuetan erabakigarria dela ulertzean, Espainiako eta Europar Batasuneko jardueren ekonomikoek sektore guztietan azkenaldian izan duten bilakaera jar daiteke testuinguruan. Era berean, biztanleriaren banaketa espazialean eta portaera demografikoetan eragin handia duten eraldaketa soziokulturalak gertatu dira.

Eraldaketa horiek eragin dituzten faktoreak eta horiek lurraldean eta gizartean dituzten ondorioak ikertzeak ekodependentzia horiek aztertzeako eremu aberatsa irekitzen du. Interdependentzia- eta interkonexio-harremanak modu induktiboan frogatu daitezke, batez ere ikasleentzat hurbilekoak eta garrantzitsuak diren kasuak edo egoera-arazoak aztertuz. Adibidez, Espainiatik kanpo eta Espainia barruan ekoitzi eta kontsumitutako ondasun edo zerbitzuen jatorria, edo praktika tradizionalekin zerikusirik ez duten ideiak, portaerak eta bizimoduak asimilatzearen ondorioak. Globalizazioaren ondorio positibo eta negatiboen azterketara iristean, giza duintasunarekiko errespetuak lehentasunezko balio etikoa izan behar du, ingurumenarekin konprometitutako herritartasun globala gauzatzeko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM1, STEM5, KD4, KPSII3.1, HK2, HK3, HK4, EK1, KKAK4.1.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

5.1. Giza duintasuna balioestea, gure ekintzek lan- eta bizi-baldintzetan dituzten ondorioak modu kritikoan aztertuz, bai Nafarroan, bai Espainian, eta beste herrialde batzuetan; harreman ekonomiko globalizatuen sistema eta sektore ekonomikoak ikertzea eta arrazoizko konponbideak proposatzea.

5.2. Ingurumena zaintzeko beharra adieraztea, ekoizpen, banaketa eta kontsumo moduek tokiko mailan eta maila globalean dituzten inpaktuak ikertzea eta hobetzeko jarduketak proposatzea.

6 GAITASUN BERARIAZKOA

Espainiako lurralde desorekak eta bere egitura soziolaboral eta demografikoarenak modu kritikoan azaltzea, egungo desberdintasunak sortzen lagundu duten prozesuak eta erabakiak ezagututa, elkartasun-kontzientzia eta Espainiako eta Europako lankidetzak eta kohesio-mekanismoekiko konpromisoa indartzeko.

6 konpetentzia espezifikoaren deskribapena

Espainiako desoreka sozioekonomiko eta demografikoen azalpen kritikoa egiteko, baliabide naturalen eta giza baliabideen banaketari buruzko diagnostiko zorrotzetik abiatu behar da, nazio mailan eta autonomia erkidegoen mailan, banaketa ez baita nonahi berdina. Produkzio-sarean dauden desberdintasunak ulertu behar dira, tamaina erlatiboaren, espezializazio-mailaren, kapitalizazioaren edo berrikuntzaren arabera, bai eta biztanleriaren banaketa espaziala eta haren osaera ezagutzea ere, sexuaren, adinaren eta gizarte- eta lan-egitura desberdinaren arabera, eta arreta eman behar zaio biztanleriaren zahartzeak, migrazio-mugimenduek, landa-despopulazioak eta hiri-aglomerazioek da- karten erronka demografikoari.

Produkzio-jarduera bakoitzaren kokapen-faktoreak –erabaki politikoak eta enpresa arlokoak barne– eta duela gutxi gertatutako prozesu sozioekonomikoen eta egungo eta etorkizuneko joeren kausei antzematen zaie arrazoi objektibo batekin argudiatuta: egungo banaketa desorekatua, aberastasunarena, biztanleriarena eta zenbait zerbitzu publiko eta pribatu eskuratzeko aukerarena. Helburua da ikasleengan elkartasuna eta lankidetzak balio konstituzional eta europazale gisa sendotzea, lurralde antolamenduko eta eskualde-garapeneko birbanaketa-politiken bidez kohesioa lortzeko.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Konpetentzia espezifiko hau deskriptore hauekin lotzen da: STEM4, KPSII1.2, KPSII3.1, HK1, HK2, HK3, EK1, EK2, KKAK3.2.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

6.1. Gizabanakoen arteko desberdintasunak eta lurraldeen artekoak konpentsatzeko mekanismoen beharra justifikatzea, iraganeko eta oraintsuko prozesuak identifikatzea, baita horien kausak eta ondorio soziolaboralak eta demografikoak ere.

6.2. Nafarroako, Espainiako eta Europako desoreka sozioekonomikoen jatorriari buruz argumentatzea, hirugarren sektorea nagusi den gizarte batean jardura ekonomikoak eta biztanleria lokalizatzeko faktoreak aztertuta.

7 GAITASUN BERARIAZKOA

Iraganeko, gaur egungo edo etorkizuneko egoerak lantzean, aurretiazko ezagutzak, ezagutza berriak eta jakintzaren beste eremu batzuetakoak mobilizatzea, eta erabakiak eta bakarkako edo taldeko lanerako estrategiak eraginkortasunez birbideratzea, eraldatzen ari diren testuinguruei irtenbide berritzaileak emateko eta etengabeko ikaskuntza sustatzeko.

7 kompetentzia espezifikoaren deskribapena

Norberaren ikaskuntzari buruzko hausnarketa funtsezkoa da helburu metakognitibo gisa. Norberaren aukeren eta mugen ezagutza hori lortzeak balio behar du autoestimua eraikitzeke eta benetako eta gertuko erronka ekosozialak bideratzeko lanetan inplikatzeko eta haien protagonista izateko, eta, beraz, bizitza aktiboan sartzeko eta funtzio sozialak betetzeko. Plangintza funtsezko prozesu bat da, eta aurretiazko ezagutzak, ezagutza berriak eta beste eremu batzuetakoak mobilizatzea eskatzen du. Era berean, hainbat tresna abian jartzea dakar, hala nola egoerak zalantzan jartzea, hipotesiak planteatzea, datuak biltzea, bildutako informazioa sistematikoki antolatzea, tratatzea, beste ebidentzia batzuekin kontrastatzea eta ondorio justifikatuak ateratzea.

Estrategia horietako asko beste pertsona batzuekin negoziatu behar dira taldean lan egitean, eztabaida- eta deliberazio-tekniken bidez, adostutako produktuak berrikusteko eta sortzeko. Jakintza horien eta pentsamendu geografikoaren ekarpenaren helburua da autoikaskuntza etengabea eta konpromiso zibiko aktiboa garatzea, bai ondorioak aurreikusteko eta ebaluatzeko orduan, bai arazo garrantzitsuetarako ekintzak lehenesteko eta erantzun berritzaileak planteatzeko orduan.

Ikasleen irteera-profilarekiko lotura

Kompetentzia espezifikoa hau deskriptore hauekin lotzen da: HKK5, STEM1, KPSII1.1, KPSII1.2, KPSII3.2, KPSIIA5, HK3, EK1, EK3.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

7.1. Fenomeno natural eta giza fenomeno garrantzitsuei buruzko jakintzak berregitea, hainbat eskalatan eta testuinguru berrietan, pentsamendu geografikoa aplikatuz, aurretiazko ezagutzak eta ezagutza berriak modu kritikoan mobilizatuz eta berrikusiz, arazoak eta aukerak diagnostikatuz, eta aurreikuspen eta konponbide posibleei buruzko arrazoiak emanaz.

2. OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Espainia, Europa eta globalizazioa.

A.1. Espainia eta Nafarroa: lokalizazioa eta egoera geografikoa munduan, erliebe-mapen, mapa bioklimatikoen eta mapa politikoen bidez. Espainiak eta Nafarroak munduan duten posizioa

erlatiboa, hainbat adierazle sozioekonomikoren arabera. Geoposizionamendua eta gailu mugikorrak.

- A.2. Espainia eta Nafarroa munduan. Espainia eta Nafarroa globalizazioaren aurrean: mehatxuak eta aukerak. Munduko testuinguru geopolitikoa eta nazioarteko erakundeetan parte hartzea. Nazioarteko lankidetzak eta misioak atzerrian. Garapen Jasangarriko Helburuekiko konpromisoen diagnostikoa.
- A.3. Espainia Europan: herrialdeen lokalizazioa eta alderdi naturalak. Europar Batasuna gaur egun: eguneroko egoeretan duen eragina. Lurralde-desorekak eta kohesio-politikak aztertzea, mapak eta adierazle sozioekonomikoak erabiliz.
- A.4. Espainiako eta Nafarroako Foru Komunitateko antolaketa administratiboa. Estatuko eta autonomia erkidegoetako lurralde-desorekak aztertzea. Espainiako Atlas Nazionalaren eta adierazle sozioekonomiko ofizialen erabilgarritasuna. Lurralde-kudeaketa eta -antolamendua: kohesiorako eta eskualde-garapenerako politikei buruzko eztabaida. Egungo egoera eta ongizate estatuaren proiektzioak.

B. Espainiako ingurune fisikoaren jasangarritasuna.

- B.1. Faktore fisikoak eta paisaien eta ekosistemen dibertsitatea Espainian eta Nafarroan. Baldintza geomorfologikoak, bioklimatikoak, edafikoak, hidrikoak eta giza jardueri buruzkoak aztertzea, eta pertsonen lotutako arriskuak prebenitzea.
- B.2. Espainiako eta Nafarroako klima dibertsitatea. Klimen banaketaren eta irudikapenaren azterketa konparatiboak. Larrialdi klimatikoa: aldaketak patroi termoplubiometrikotik; kausak, ondorioak eta arintzeko eta egokitzeko neurriak. Eguraldia interpretatzeko estrategiak eta alerta meteorologikoak; webguneak eta aplikazio mugikorrak.
- B.3. Biodibertsitatea, lurzoruak eta sare hidrikoak Espainian eta Nafarroan. Ezaugarriak, eskualde naturalen arabera. Giza jardueren inpaktuak eta horien gaineko ondorioak: biodibertsitatearen eta lurzoruen galera eta uraren kudeaketa. Irudiak, kartografia eta datuak interpretatzea. Pertsonen sortutako arriskuak.
- B.4. Ingurumen-politikak Nafarroan, Espainian eta Europar Batasunean: diagnostiko-tresnen erabilera. Naturagune babestuen sarea eta Natura 2000 sarea. Garapen-ereduaren aldaketek buruzko eztabaida: jasangarritasun-printzipioa.

C. Lurraldearen antolamendua ikuspegi ekosozialean.

- C.1. Espainiako eta Nafarroako populazioa: egituraren eta desoreken azterketa. Datuen, grafikoen eta mapen interpretazio kausala: iraganeko joerak, gaur egungoak eta proiektzioak. Migrazio-mugimenduen abantailak eta eragozpenak; etnia- eta kultura-aniztasunarekiko errespetua. Erronka demografikoa: zahartzea eta landa-eremuko despopulazioa.
- C.2. Hiri-espazioak Espainian eta Nafarroan: hiri-kontzentrazio handiak Europako eta munduko testuinguruan. Hiriaren funtzioak eta lurraldearekiko interdependentsia-harremanak. Hiri-egitura planoen bidez: ondorioak bizimoduetan eta ingurumen-inpaktuak. Hiri jasangarrien ereduak. Espazio publikoaren erabilera. Mugikortasun segurua, osasungarria eta jasangarria. Iruñeko metropoli-eremuaren adibidea: bilakaera historikoa.
- C.3. Landa-espazioak Espainian eta Nafarroan. Nekazaritzako paisaiak identifikatzea. Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren eraldaketak: jardunbide jasangarriak eta jasanekinak. Hurbileko nekazaritzako elikagaien eta basoko produktuen balio soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa: aztarna ekologikoak eta gizarte- eta lan-egitura ikertzea. Egungo Nekazaritza Politika Bateratuak landagarapenean eta jasangarritasunean duen eragina. Kasuen azterketa: etiketa bereizialak, ekologikoa, etab.

- C.4. Itsas baliabideak eta itsasertzaren eraldaketa: arrantza, akuikultura eta beste aprobetxamendu batzuk. Jasangarritasuna eta Arrantza Politika Bateratua. Kasuen azterketa: itsaski-bilketa, baxurako eta alturako arrantza, akuikultura, kalen gehiegizko ustiapena, etab.
- C.5. Industria-espazioak Espainian eta Nafarroan. Industria-jardueretako eta paisaietako eraldaketak: lehengaiak eta energia-iturriak. Azterna ekologikoen ebaluazioa; mendekotasun eta trantsizio energetikoa; industria-sarearen egitura, gizarte- eta lan-egitura eta zeharkako enpleguarena. Deslokalizazioaren eragina Espainiako industria-sektoreetan. Espainiako eta Nafarroako kasuen azterketa: eraikuntza, automobilgintza, nekazaritzako elikagaien industria, etab., eta lokalizazio faktoreak. Europar Batasuneko politiken eraginari eta globalizazioari buruzko eztabaida.
- C.6. Hirugarren sektorea nagusi duten espazioak Espainian eta Nafarroan. Ekonomia zirkularraren eredua eta zerbitzuak: ekoizpenaren, banaketaren eta salmentaren arteko erlazioak. Azterna ekologikoen, gizarte- eta lan-egituraren, erantzukizun sozial korporatiboaren eta kontsumitzaileen azterketa kritikoa. Espainiako eta Nafarroako kasuen azterketa: lehiakortasuna eta desorekak garraioan, merkataritzan, turismoan, funtsezko zerbitzuetan eta abarretan, eta lokalizazio faktoreak. Zerbitzuen eredu jasanezinak eta alternatibak. Ekonomia digitala: «elkarlaneko ekonomiaren» inpaktua eta negozio-eredu berriak testuinguru globalean eta Europar Batasunaren testuinguruan.